


A T Z O K O  
**Andoain**

12. zbk.

2000ko urtarrilaren 30a.

*eta andoaindarrak*  
**eta  
ando  
ainda  
rrak**



***Kirolak***



# EDOZERREKIN EDOZERTAN

**2**000. urteko lehen alearekin gatozkizue. Mende berria hasi ote zaigun eztabaida alde batera utziko dugu. Baina ezin dugu azaldu gabe utzi urte berriaren zenbaki borobilak sortzen digun irrika. Horrez gain, gudan, kirolak dira urteko lehen alearen hizketagaia. Euskal Herrian, Espainian eta, zergatik ez, European garrantzitsuak izan ziren kirolari askok egin zituzten hastapenak Andoaingo kaleetan, mila bederatzirehuneko erdialdeko urteetan.

Gaur egun ditugun `entretanimenduak` ez zituzten garai bateko andoaindarrek, eta kaleko jokoetan ematen zituzten ordu libreak. Beraz, normala da kirolari ugari irteeta Andoaindik. Baina bada beste arrazoi bat: Don Jose Oiartzun apaizaren `meritua` da hainbeste kirolari, eta onak eman izana herriak. Hura izan omen zen kirol guztien bultzatzailea.

Kirolari konpletoak ziren garai hartakoak gainera. Kirol mota guztietan aritzen ziren, ez gaur egun

bezala —bakarrean dira espezialistak—. Kirol guztiak egiten zituztenen artean nabarmendu behar da Bixente Huizi. Hori korrika ibiltzen zen eta boxeoa ere bai. Txukun egiten zituen modalitate guztiak.

Askotan, jantzi eta erraminta egokirik ez zuten korrika, txirrinduan edo futboleant aritzeko. Bati baino gehiagori barregurea emango dio entzuteak futboleant aritzeko baloia ez zutela batzuetan, eta tomate potoarekin ibili behar zutela. Baina horrek agerian uzten du garai bateko andoaindarrek zuten abilezia une haietara egokitzeko —ezer gutxi baitzen— eta zuten ausardia edozer tramankulurekin edozein jokutan aritzeko.

Kirolotako multinazionalen arteko leiharen garaietan gauden hauetan, gaurko umeei esan behar etxe ezagunen marka gabeko jantziak soinean janzteko edo alpagata zulatuekin ibiltzeko futboleant! Ezultuarena egingo dute ziurrenik.

## PILOTA

Eskuz edo palaz, gerra aurreko eta ondorengo neska-mutiko andoaindarrek pilotan aritzen ziren libre zuten denboran: lanetik edo eskolatik atera eta bazkaldu aurretik, eta bazkaldu ondoren lanera edo eskolara itzuli baino lehen. Momentu guztiak aprobetxatzen zituzten. Horretarako lekuak ziren Kontzejupea, Goikoplazako frontoia, beheko kaleko arkupeak, Lasalleko frontoia, eta baita horma egoki bat zuen edozein txoko ere. Baina Kontzejupea zen pilotazaleen leku gustokoena, Joxemari Olazabalek azpimarratu duenez: "Mutikokorra ginela, igandeetan, zortziretako meza amaitu eta gero tokia ezin harrapatu ibiltzen ginen pilota partida ikusteko".

Beheko arkupetan ere gustora aritzen ziren pilotan. Baina han debekatuta zegoen jokatzera, Bixente Olanok zehaztu duenez. "Multa de 5 pesetas" irakur zitekeen horman, baina hala ere, jokatzen genuen". Batik bat trinketea egiteko zen hura. Koska ugari zituen, zaila zen jokatzeke. Baina Iñaki


Arregik esan duenez, txoko guztiak ezagutzen zituen Miguelito Kinkilleroak. "Behin koska jo, beste behin atea..., tantua egiten zuen beti. Truko guztiak zekizkien".

Pilotari ezagunak eman ditu Andoainek. Olazabalek aitatu ditu horietako batzuk: Martin Arburua `Xope`, German Usandizaga, Roke Altuna, Bernabe Elizondo, Rufino Irazu, Iñaki eta Imanol Arretxe... "Eskuz aritzen ziren horiek eta herri mailan onenak ziren", gaineratu du.

Kontzejupean, berriz, palaz aritzen ziren. "Gezurra dirudi hain leku ttikian...", Olazabalek zehaztu duenez. Eta jokoan erabiltzen zuten pilota ez zen gomazkoa, palazkoa edo larruzkoa

baizik. Don Alejandro medikua omen zen onena, Gipuzkoako txapeldun ere izan baitzen. Felix Arratibel ere aitatu dute, mahai inguruan bildutako gure solaskideek. "Txanpain botilarekin jotzen zion pilotari", azpimarratu du Olazabalek.

Garai hartako pilotari andoaindarrek puntan ibiltzeko bezain onak ziren. Bernabe Elizondok Atano III.ari tantua nola sartu zion gogora ekarri du Miguel Amasek. "Andoaingo frontoian jokatu zen partida. Bernabe, Arretxe eta hirugarren bat aritu ziren Atano III.a eta Etxarriren kontra. Bernaberen tantuari esker irabazi egin zuten 22 eta 21, eta Bernabe atera zen Andoaingo Plazatikan bizkarrean, toreroak bezala".



Goikoplazan esku pilotan, 1915eko argazkian.



Bixente Olano

"Beheko arkupetan debekatuta zegoen pilotan aritzea. "Multa de 5 pesetas" irakur zitekeen horman, baina hala ere, jokatzen genuen".



Palista afizionatu on asko irten da Andoaindik. Olazabalek esan duenez, Munduko Txapelduna izan zen Luziano Unanue, eta Juan Kruz Artola Espainiako Txapeldun bitan. Profesionalak, berriz, Ameriketara joaten ziren pilotan jokatzera. "Haiei udal bandarekin egiten zitzairen ongietorria", Amasek esan duenez. Horien artean nabarmendu du Txitibarko Urrezko Haurra.

Zesta puntako pilotarien artean ere badira Ameriketara joandakoak. Besteak beste, Planttako hiru anaiak: Martin, Luis eta Ramon.

Emakumeak ez ziren atzera gertatzen. Loli Elizondo gizonetakoekin aritzen zen jokoan, Miren Zarragak esan duenez. Aita, Bernabe anaia eta osabekin aritzen zen Loli, batik bat, raketaekin. Eskuz, Emeteri Uranga zen "numero uno", Amasek azaldu duenez.



Miguel Amas

Behin, Bernabe Elizondo, Arretxe eta hirugarren bat aritu ziren Atano III.a eta Etxarriren kontra. Bernaberen tantuari esker irabazi egin zuten 22 eta 21, eta Bernabe atera zen Andoaingo Plazatikan bizkarrean, toreroak bezala".

"Mutil xamarra" zela gaineratu du Amasek.

Zarraga bera ere aritua da pilotan. "Etxeberrietan jokatzeko genuen eta marimutil esaten ziguten".

## APOSTUA

Apostuek ere bazuten lekua Andoainen. Lasallen egiten zirela adierazi du Patxi Irizarrek, bai frontoia egin aurretik eta baita ere ondoren. Apostuan jartzen zena dirua zen, "pezeta igual", Irizarrek gehitu duenez. "Han biltzen ginen Patxi 'Bonbon', Joxe 'Xapata', Axintxo Beraza, Axintxo Etxebeste, Joxe Galardi, Igiñitz eta Joxe Aizpurua".

## PILOTA ALDAPAN BEHERA

Goikoplazan pilotan aritzeak bazituen desabantailak. Frontoian aritu eta pilota Kaletxikiko aldapan behera joatean, hari segika beheraino joan beharra zegoela azpimarratu du Amasek. "Alejandro Ganzarainek eta haiek jokatzeko zutenen, pilota aldapan behera joan aurretik ez bazuten harrapatzen, behera joan behar ba bila. Haiek pilotan baino gehiago aritzen ziren pilotaren bila", azaldu du Olanok.



Miren Zarraga

"Etxeberrietan jokatzeko genuen Pilotan eta marimutil esaten ziguten".

Frontoia gaur egun dagoen leku beretsuan zegoen garai hartan, Arregik zehaztu duenez. Eta Muñagorriren etxea zen orduan, frontoiaren ondoan. "Zakurra egoten zen etxean eta edozein sartzen zen ba hara pilotaren bila", gaineratu du Arregik keinu batekin. Horregatik, Karmeni, etxeoandreari, eskatzen zioten pilota. Lehenago, zakurrak pilota puskatu ez bazuen behintzat.



Pilota partida San Joanetako jaietan.

## KORRIKA SAIOAK

Korrika saioak aipatzean Azelaingo Señoritoarekin hasi behar dugula nabarmendu du Arregik. Hark bazuen etxean apopilo De Nys korrikalari belgiarra. Lasterketak prestatzen eta entrenatzen egiten zituen egunak De Nysek.

Behinola, gerra aurretik, De Nysek egindako korrika saio goibela azaldu du Patxi Irizar 'Garrok': "Zarauztik Aia arteko karrera egin zuten De Nysek eta Etxenagusiak. Azken hori Aia bertakoa zen. Bero handia zen egun hartan eta De Nysek esan omen zuen 'ez diagu atera behar, beroa izugarria duk'. De Nysek bazituen fakultadeak, Etxenagusiak ez ordea. Atera ziren, eta jakina, De Nysek segitu ere egin zuen aurrera. Gero pixka bat gehiago jo zuen eta hari segitu nahi izan zion Etxenagusiak. Hori han geratu zen itota karreran".

## KORRIKALARIAK

Andoaindarraren artean baziren korrikalari onak. Pello Ugalde —Martin Ugalderekin aita—, Ramon Etxeberria, Joxe Ibarbia eta abar. Baina guztien artean nabarmendu behar da Patxi Irizar, gure solaskideek ahobatez esan dutenez.


Korrika egiteko lekuen artean, berriz, Lasarte-Zubietako hipodromoa zen jauna eta errege. "Espainia guztian



Iñaki Arregi

"Azelaingo Señoritoak bazuen etxean apopilo De Nys korrikalari belgiarra. Lasterketak prestatzen eta entrenatzen egiten zituen egunak".

ez zegoen halakorik", Olazabalek argitu duenez. "Patxik korrika egiten zuela eta Andoaindik ehun, berrehun edo



Irizar, 1936an, Donostiako Nazioarteko I. Krosean parte hartu ondoren.



hiruehun lagun joaten ginen oinez". Baina ez pentsa errepidez egiten zutenik bidea, mendian barrena baizik, Esther Arrietak zehaztu duenez.

19 bat urte zituenean hasi zen korrika Irizar. Garro baserrian eta Telleria lantokian lan egin eta gero aritzen zen korrika. Parte hartzen zuen lasterketa gehienak irabazi egiten zituen gainera. "Hori da meritua", azpimarratu du Joxepa Ormaetxeak. Irizar oso ona zen garai hartan, Albaceteko Amoros zuen kontrario garrantzitsuena Espainian, Olanoren arabera. Baina Amorosak baino laguntza gutxiago zuen Irizarrek. Amasek gogoratu duenez, Kataluniak diru laguntza handiak eman zizkion Amorosari. Irizarrek, ordea, ez zuen laguntzarik. Eta, gainera, korrikako kontuengatik etxeko inork ez ziola hitza ematen adierazi du Irizarrek. Nonbait, etxean ez zuten gogoko hura korrikan ibiltzea.

Apostu bati esker egin zuen lehen korrika saioa. Larunbat goiz batean 40



Joxemari Olazabal

"Lasarte-Zubietako hipodromoan Patxi korrika egiten zuela eta Andoaindik ehun, berrehun edo hiruehun lagun joaten ginen oinez".

duronako apostua egin zuten Irizarren lantokiko bi lagunek. "Arratsaldeko seiretan lanetik atera eta Elizara konfesatzera nindoala esan zidaten korrika egin behar nuela inularre hartan". Apostua zen 28 minututan egin behar zituela zazpi kilometro. "Horrela, Itzaltxikitik atera nintzen. Upategira jo nuen, handik bueltan Bentaberrira, Upategira eta berriro Bentaberrira. 25 minutu eskasetan egin nuen". Etxean esan zuen guztia, eta denak muturtuta jarri zitzaizkion.

Handik aurrera, herriko denek apostua egin nahi zuten Irizarren kontura, berak azaldu duenez. "Baina nola ba, etxeko inork ez zidan eta hitz egiten", zehaztu du Irizarrek.

Familia alde ez eduki arren, aurrera egiteko aukera izan zuen Irizarrek. Amateurretan sartzea hobe zuela esan zion Joseba Agirrek —orduak Moledan egiten zuen lan— Irizarren aita zenari, "apostua saltsa gehiegi zelako". Hala, Euskalduna Klubeko kide egin zen. Lau korrikalari zeuden han, Irizarrek azaldu duenez: Irizar bera, Ramon Beloki, Juanito Agirre eta Paulo Izagirre. Bigarren kategorian aritu zen korrika orduan.

Korrika egiteko ez zituen erabiltzen gaur egun dauden jantzi dotore eta



Patxi Irizar

"Lantokiko bik apostua egin zuten, 28 minututan egin behar nituela 7 kilometro. Inularren atera nintzen Itzaltxikitik. Upategira jo nuen, handik bueltan Benta Berrira. Upategira eta berriro Benta Berrira. 25 minutu eskasetan egin nuen".

egokiak. "Galtza motzik ez genuen, baina zapatila onak bai", zehaztu du Irizarrek.

Berehalaxe hasi zen Irizar Zubien Zirkuitoa egiten. Ondoren, Elgoibarko lasterketa egin zuen eta proba hartan bi andoaindar geratu ziren lehenengo

horretako bospasei krosetan partehartu zuen Irizarrek, besteak beste, Gales eta Holandan. Ia beti heldu zen helmugara lehenengo bosten artean.

Anekdotak moduan aipatu du Irizarrek, inbidia apur bat sortzen zuela herriko gizonezkoen artean. Batik bat, atzerriko neskak ikusteko aukera izan zuelako Irizarrek, eta herrian bakarren batek uste zuelako atzerriko neskak "ezberdinak" zirela.

## MUSIKA BANDA

Lasterketa saiotik herrira itzultzean, herriko musika bandak egiten zion ongietorria Irizarri. "Etxeberrietako futbol zelaitik Kaletxikiraino bizkargainean eramaten ninduten. Ondoren, Kaletxikin Bodegara sartzen ginen afaltzeko", zehaztu du Irizarrek.

"Admiradorak" ere bazituen Irizarrek. Zarraga hiru ahizpak haren atzetik ibiltzen zirela esan du Miren Zarra-



Irizarri, 1956an, Donostiako Nazioarteko I. Kros Nagusian korri egin eta gero, udal bandak ongietorria egin zion Andoainean.

bi postuetan: Irizar aurrena eta Paulo Izagirre bigarrena. Handik 15 egunera murgildu zen lehen mailako txapelketetan. Baina soldadutza egiteko garaia heldu zitzaion eta militarrek "eraman" zuten. Hiru urte egin zituen militar jantziarekin, eta tartean makina bat korrika egin zuen.

Soldadu zegoela joan zen Kataluniara lasterketa batean parte hartzera. Militarrekin joan zen, noski. Ondoren, atzerrian sortu ziren karrerak. Baina legeak ez zion uzten Irizarri kanpora irteten. "Lege batek debekatu egiten zien militarrei Espainiatik kanpo ateratzea. Barruan korri egin genezakeen, baina ez kanpoan. Guztiei komeni zitzaion, ordea, ni atzerrira joatea. Izan ere, garai hartara arte soldadu zegoenik granorik ez zen inoiz sailkatu, eta ni bai. Horregatik, legea aldatu egin zen". Eskoziara joan zen horrela, Nazioetako Krosera. Tankera



Patxi Irizar

"Lasterketa saiotik herrira itzultzean, herriko musika bandak egiten zidan ongietorria. Etxeberrietako futbol zelaitik Kaletxikiraino bizkargainean eramaten ninduten. Ondoren, Kaletxikin Bodegara sartzen ginen afaltzeko".

gak. Irizar non, Zarraga ahizpak han egongo ziren. Eta bandak ongietorria ematean "garrainsi bizian" aritzen ziren neskak.

Beste korrikalari on asko sortu zen Irizarren ondoren: Bixente Huizi, Txomin Arruabarrena, Tomas Collantes, Juanito Agirre...



## TXIRRINDULARITZA


### BIZIKLETA GUTXI

Bizikletan ibiltzeko afizioa bazen Andoainen gerra ondoren. Baina edozeinek ez zuen eskura txirrinda. Amasek esan duenez, lanera joan behar zuenak zuen bizikleta. Besteek, ahal zuten moduan, alokatu egiten zuten. Gure solaskideek argi utzi dute bizikleta gutxi zegoela Andoainen orduan. Izenekin azal daitezke bizikleta zutenak: "Kamiyo" Adunatik etortzen zen, Nikolas Aranburu, Uban, Amundo, Ramon Ganzarain, Pello Ugalde, Joxe Ubillus eta abar.

Gure solaskideen artean, Loren Navarroren aitak soilik zuen bizikleta. "Gaur Danena den leku horretan biziginen lehen. Lanetik bueltan, eguerdian, eskaratzean uzten zuen bizikleta aitak. Eta bazkaltzen zuen bitartean ume pila bat ibiltzen zen saltsan bizikletarekin", esan du Navarrok.

Bizikleta gutxi izan arren, andoaindarren artean izan dira txirrindulari onak. Gurutz Ganzarain da izenik aipagarriena horien artean.

Hura da Andoainek eman duen txirrindulari puntakoenetakoa. Olazabalek ekarri du gogora behin Ganzarainek eta Langarikak egindako tratua. "Langarika zen Espainiako onena. Tolosan, San Joanetan, karrera bat antolatu zuten eta tratua zen Ganzarainek utzi egin behar ziola irabazten



Txirrindularitzako Munduko Txapelketa, 1965an, Gudarien Etorbideko Txixarrain baserri aurretik igarotzen.



Joxemari Olazabal

*"Tolosan. San Joanetan, karrera bat antolatu zen eta tratua zen Ganzarainek utzi egin behar ziola irabazten Langarikari. Ganzarainek esprintean irabazi zuen. Ikaragarrizko jaleoa sortu zen".*

Langarikari. Gorritira sartzeko zubia pasa eta errebueltaren ondoren zegoen helmuga eta Ganzarainek esprintean

irabazi zuen". Haren ondoren, "ikaragarrizko jaleoa" sortu zela azpimarratu du Olazabalek.

Ganzarain karreretan jantzita nola joaten zen azaldu du Zarragak; alegia, "bridge" galtza dotoreak eta sport galterdiak eramaten zituela.

Txirrindulari taldea ere bazegoen Andoainen. Lehen taldea Minerrek eta Ramon Garmendiak egin zutela adierazi du Amasek. Garai hartan, San Joanetako jaietan, karrera bat egin zela zehaztu du Navarrok: "Luis Larburuk irabazi zuen. Doña Juanitanian guk zinta bat egin genuen irabazten zuenari emateko eta hura neronek jarri nion Luisi".

## BOLOAK

Bola jokoa oso hedatuta zegoen herrian. Pista luze moduko batean bederatzi brilla jartzen ziren, eta jokalaria bola handi bat bota behar zuen pistaren beste muturretik, haiek lurrera eror zitezten. Brilla gehien botatzen zuenak irabazten zuen.

Batik bat baserri eta sagardotegi giroari lotuta egon dira bolatokiak. Sagardotegia non, ia ziurra zen bolatokia ere bazegoela han. Ezin da zehatz jakin zenbat bolatoki zeuden Andoainen, gerra osteko garaietan. Bai, ordea, hamarretik gora bazirela. Solaskideek esan dutenez, Kaletxikin zen bolatoki "famosoena". Horrez gainera, bi zeuden Leizotz auzoan: Etxabe baserrian eta Etxamunon. Goiburun Dorrontxolatxikin zegoen bolatokia, Ama Kandidan Bentaberrin, Goikopla-



Joxepa Ormaetxea

*"Igande batean, mezaren ondoren, Elizondonean egin zen bazkaria. Ondoren, frontoi ondoko bolatokira joan ziren bazkaltokian izandakoak, Don Konstantino tartean. Bola hartu zuen Don Konstantinok eta brilletara bota beharrean, Kaletxikiko aldapan behera joan zen bola".*

zan frontoi ondoan eta Elizondon, Kaleberrian Zumetanean, Kaletxikiko aldapan beste bat, Etxeberrietako eskoletan, Largoneko tabernaren atzean, Larramendi berrian ...Gehiago ere izango ziren.

Zaletasun handia zegoen joko horretan aritzeko, egunero jokatzen zuten batzuek.

Ormaetxeak gogora ekarri digu behin Don Konstantinok egin zuen saioa. "Igande batean, mezaren ondoren, Elizondonean egin zen bazkaria. Ondoren, frontoi ondoko bolatokira joan ziren bazkaltokian izandakoak, Don Konstantino tartean. Bola hartu zuen Don Konstantinok eta brilletara bota beharrean, Kaletxikiko aldapan behera joan zen bola".

Herri barruan Altolagirre omen zen onenetakoa, Amasen arabera. German ere aipatu du Irizarrek, eta Roke Ansak Lontxo Irazu.


Ansak esan duenez, apostuak ere egiten ziren. "Diru asko jokatzen zen. "Hiru par lau baietz edo ezetz", horrela aritzen ginen".



## BOXEOA

Etxeberrieta aldean eta Goikoplazan izaten zen boxeoa Andoainean. Arregik adierazi duenez, garai batean "sokratua" zen boxeoa San Joanetako jaietan. Beti gauean izaten ziren lehiaketak. Boxeoan aritzen ziren Bixente Huizi —honek kirol guztiak egiten zituela azaldu dute solaskideek—, Lirio anaiak, Okariz, Pedro Gomez, Xenen... Izen horiek guztiak azpimarratu ditu Amasek. Eta izen gehiago ere geratuko ziren aipatu gabe.

Gaur egun erabat alboratua dago boxeoa herrian. Garai batean, ordea, boxeoan aritzeko zaletasun handia zegoen, Ormaetxeak adierazi duenez. Bere iritziz, lehengo herriko jaietan ez zeuden gaur egun egiten diren ekital-



San Joanetako jai batzuetan egindako boxeo borrokaldi bat.



Iñaki  
Arregi

"Boxeoa 'sokratua' izaten zen San Joanetako jaietan"

diak. Jendea ez zen ibiltzen tabernaz taberna, gaur egungo poteoan; jaia egiten zuten plazako dantzaldian eta boxeoa eta bestelako kirol ekintzak egiten eta ikusten ziren.

Herri mailan aritzen ziren boxeolariak batik bat. Baina herritik kanpora irteten ziren bakarren batzuk, gutxi

baziren ere. Kanpoan ibiliak ziren Okariz eta Lirio anaiak, Amasek argitu duenez. Boxeo borrokaldi dexente egin omen zituen Okarizek, eta baita Bixente Huizik ere. Azken horrek ziren eta ez ziren kirol jarduera guztiak egin zituela azpimarratu du berriro Amasek.

## FUTBOLA

Kirolen artean azken lekuan azaldu dugu futbola. Baina horrek ez du esan nahi garrantzi txikiagoa zuenik, goian aipatutako kirolekin alderatuta. Hala

ere, Amasek esan du pilotan aritzen zirela gehiago garai hartan.

Futboleant, ordea, Andoaingo kale eta txoko guztietan ibiltzen ziren

herriko mutilak. Baloia ezean "tomate potoarekin igual" jokatzen zuten, Olazabalek zehaztu duenez.

Futbol jokalaria asko eta onak eman ditu Andoainek. "Futbolarien harrobia izan da Etxeberrieta", Arregik esan bezala. "Bai, Etxeberrieta izango da futbolarien harrobia, baina Andoainen futbolari onenak Kaletxikitik irten dira", zehaztu du Amasek. Irizarrek ere hitza hartu du solasaldiaren une hone-



Euskaldunak 1968an omenaldia egin zion Isidro Langarari, Etxeberrietako futbol zelaian.



Miguel  
Amas

"Oso ona zen Langara. Nik irakurrira daukat, Di Steffano aitarekin nola joaten zen Langara ikustera, horrek Argentinako Lehen Mailako San Lorenzo de Almagro taldean jokatzen zuenean".



tan: "Onena atera da Isidro Langara. Gerra garaian Argentinara joan zen exiliora eta harek gol garrantzitsuak sartu zituen Espainiako selekzioarekin".

Amas bat etorri da Irizarrekin, Langarari buruz hitz egitean. "Oso ona zen. Nik irakurrita daukat, Di Stefano aitarekin nola joaten zen Langara ikustera, horrek Argentinako Lehen Mailako San Lorenzo de Almagro taldean jokatzeko zuenean". Entrenadore lanetan aritu zen gero Langara.

"Baina hari kendu egin zion postua Langarak, eta erdilari aurrelari gisa jokatu zuen". Ordurako ez zen hain gaztea, 36 urte inguru izango zituen. "Nik ikusi nuen Atotxan jokatzeko 35 urte zituenean. `Mira el viejo como juega´ entzuten zen orduan harmailetan, baina erretiratu egin zen gutxira", adierazi du Amasek. Behinola, Langarari galdetu omen zioten zergatik utzi zuen jokoa, eta hark erantzun omen zuen: "Bai, nik aurreraka ondo jokatzeko diat, baina baloia kentzen didate-

Artola anaiak, Lasa anaiak, Corcuera, Esnaola... Denak pasa ziren Euskaldunatik.

Etxeberrietako futbol zelaian jokatzeko zuten Euskaldunak igandeetan. Euskaldunaren partidak "festa" izaten zirela esan du Ormaetxeak.

"Orain 75 urte Andoaingo futbol zelaia oso ona zen eta norbaitek hartu zuen berea bezala. Goi mailako partidak izan ziren Andoainen. Alde bate-tik, Euskalduna bera aritu zen. Baina, bestetik, Donostiako Esperanza taldea



Euskalduna taldea erregionaleko txapeldun atera zen eta Hirugarren Mailara igo 1961. urtean. Goiko iladan, eskuinetik hasita bigarrena da Bixente Huizi. Taldearen entrenatzailea zen orduan.

Horren ondoren, Mexikora joan zen, La Pueblara.

Ameriketatik Europara itzuli zen gero. Olazabalek azaldu duenez, bi urtez jokatu zuen Oviedon, Asturiasen. "Izugarrizko partidak egin zituen han. Maiz irakurri zen egunkarietan `Langara... sigue siendo Langara`. Garai hartan, Zarra zen erdiko aurrelari onena Espainian, Amasen iritziz.



Joxemari Olazabal

"Bixente Huizik dauka meritu handiena Euskalduna Futbol taldea Hirugarren Mailara igo izana".

nean, buelta ematerako besteak joan zaizkit urrutira". Baloiarekin trebea izan arren, abiadura galduta zuen edadeagatik.

### EUSKALDUNA TALDEA

Langarak gazte garaian jokatu zuen Andoaingo Euskalduna taldean. Andoain baino, "benetako eskola" Euskalduna bera izan zela esan du Olazabalek. "Espainiako Lehen Mailako jokalaririk ugari pasa ziren Euskaldunatik, ez andoaindarrak bakarrik".

Langaraz gain, futbol jokalaririk gehiago eman ditu Andoainek: Silverio Izagirre —internazionala—, Ermengildo Gonzalez —Bartzelonako Espanyol-en jokalaria— Juan Kruz Artola —hau ere Espanyol-en aritua—, Martin Maiz, Fidel Arrieta, Rafael Mendiluze,

etortzen zen", azpimarratu du Olazabalek. Gero uholdeak izan ziren, eta futbol zelaia hondatu egin zen.

Euskaldunak jokatu duen maila altuena Hirugarren Maila izan da, baina horra igo baino urtebete lehenago desegiteko arriskuan egon zen taldea, Olazabalek zehaztu duenez. Bera zen orduan presidente: "Bost lagun ginen direktibian. Inork ez zuen egon nahi. Azkenean, fabrikako lauzpabost mutil koxkor hartu nituen soldadutzara joan aurretik. Bixente Huizi entrenadorea zen orduan eta berak dauka meriturik handiena Euskalduna Hirugarren Mailara igo izanagatik. Haren gain utzi nuen bat edo bestea jokoan jartzeko ardura. Hala txapelketa erregionala irabazi genuen eta Hirugarren Mailara igo". Diru azaroak izan zituen gero, eta mailaz jaitsi egin zen.



# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Andoaingo baserriak ekarriko ditugu orri hauetara hurrengo zenbakian. Atzoko andoaindarrak gogoratuko dira nolakoak ziren lehengo baserriak, nola zegoen sukaldeak ikuilu ondoan. Herritarren bizileku eta lantokiak ziren baserriak orduan. Horregatik, eraikineko txoko guztiek funtzio bat zuten. Beharraren arabera banatzen ziren etxeke gelak.

Gaur egun, ordea, aldatu egin dira gauzak: baserriak hutsik bizileku dira, baina ez lantoki. Salbuespena dira azken horiek. Eraikineko gelen banaketa ere ezberdina da. Kanpoaldeko hormei eutsi egin zaie baserri askotan, baina barrualdea erabat egokitu da.

Bota egin diren baserriak ere ez dira gutxi. Gaur egun kalea den lekuan, baserri ugari zegoen garai batean eta ia denak desagertu dira. Kaleak lekua jan dio baserriari Andoainen.



## Taldea berritu nahian gabiltza

Ikaragarri kontu zahar pila astindu ditugu orain arte, baina oraindik baditugu gai ugari. Urte honetan ere, hilabetero argitaratuko da aintzinako istorioei buruzko aldizkaritxo hau. Horretarako, ordea, kontu horiek ondo ezagutzen duen jendea behar dugu. Aurtengo taldea berritu eta osatu egin nahi baitugu, izan ere. Animatu zaitetz eta deitu 300732 telefonora.



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren dirulaguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz.  
**Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Agurtzane Ormaetxea. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udala artxiboa eta 'Argazkiak Andoain' liburua.  
**Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). ISSN: 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.